

HOBETU ZURE HERRIKO/HIRIKO KLIMA



Aditu guztiak bat datoz: **planetaren berokuntza** errealitate bat da eta berotegi-efektuko gasak (metanoa, oxido nitrosoa eta karbono dioxidoa) dira eragile zuzenak.

Ondorioak ere nabaritzen ari dira: temperatura globalaren igoera, itsasoaren mailaren igoera, ekosistemen desoreka, aparteko gertakari atmosferikoak... Beraz, arduratsu jokatzeko ez badugu, prozesua itzulezina izan daiteke.

Gaur egun, batera eta bestera ibiltzeko, neurri handi batean, erregai fosila behar duten ibilgailuak erabiltzen ditugu eta erregai horiek karbono dioxido isurle nagusi dira. Gure ibiltzeko modu honek, bestalde, hirietako eta herrietako "klima" ere eragina du: trafikoa zarata eta airearen kutsadura sortzen du, hildakoak eta zaurituak errepideetan, auto pilaketak, espazio publiko gutxiago dago eta gizarte kohesioa galarazten du.

1 Autoa aparkatu eta bizikletaren aldeko apustua egin. Herrietan eta hirietan bizikletaren erabilerak klima hobetzen laguntzen du zalantzarik gabe. Bizikleta erabiltzearen aldeko apustua egin: "Gero eta kotxe gutxiago, orduan eta klima hobea". Kontuan eduki garraioek isurtzen dutenaren erdia hirietan ekoizten dela, eta hirietan autoa dela garraio bide erabiliena (garraioek isuritako CO₂aren % 85 autoek eragina da).

2 Garraio publikoa aukeratu, batez ere, desplazamendu luzeenetan: seguruagoa da, askoz ere merkeagoa eta gainera, autoak baino askoz gutxiago kutsatzen du.

3 Lanera joateko beste pertsona batzuekin antolatu kotxea partekatzeko. Mugikortasunaren inguruan egindako ikerketa gehienek kotxearen erabilera-tasa oso baxua eman dute: kasu gehienetan batez bestekoa ez da 2 pertsona ibilgailuko.

4 Urtean 15.000 km baino gutxiago egiten badituzu, seguruenik ez zaizu errentagarria izango ibilgailua edukitzea. Orain, badaude beste aukera batzuk eskaintzen dituzten enpresa berriak www.euskocarsharing.com.

5 Auto bat erosi behar baduzu, **aukeratu ingurumena gehien errespetatzen duten modeloren bat:** hibridoak, gas kutsatzaile gutxiago isurtzen dutenak, osagai gehienak birziklatzen dituztenak...

6 Ekintza Plan Globala nazioarteko programa bat da, helburu bezala herritarren ohiturak aldatzea duelarik, horrela, baliabideen erabileraren eraginkortasuna hobetzeko eta Planetan duen inpaktua gutxitzeko. Programa honek energi gastua kalkulatzeko lagunduko dizu eta gastu hori gutxitzeko, besteak beste, etxeko energiaren kontsumoan, eskolakoan edo lanekoan neurri erraz batzuk hartuta. **GAP**aren inguruan informazio zaituz www.programagap.org edo jarri harremanetan Tolosako Udaleko Agenda 21, Partaidetza eta Ingurumen Departamentuarekin (**tel.943 697 521**).

7 Energia berriztagarria aukeratu zure etxerako (ordenagailuarekin bezala gertatzen da, hasieran garestiak ziren). Jabeen erkidegoan eguzki energiaren sistema jarrita (berokuntza eta ur beroaren-tzako) 3 urtetan gutxi gorabehera amortizatu daiteke, eta luzarora begira merkeagoa da eta ez du kutsatzen.



TOLOSAKO UDALA



tolosakoingurumenzentroa

TOLOSA2015